
Einstein
6TIK 12 URTE BITARTEKO
ZIENTZIALARIENTZAKO
IKUSKIZUNA
GARBI LOSADAK
eta JOSE ANTONIO VITORIAK
Idatzia eta zuzendua
Ekoizpena
ADOS TEATROA
ESTREINALDIA
Antzokietarako bertsio berria
Banaketa
producciones GAUPASA

# nola egiten da Einsteini buruzko ikuskizun bat?

***"Guztia ahalik eta bakunena egin behar da, baina sekula ez bakunagoa".***
*Albert Einstein*

Haurrek galderak egiten dituzte eta erantzun argi eta sinesgarriak espero dituzte. *Zerk eusten ditu eguzkia eta planetak espazioan? Estralurtarrak existitzen dira? Zer da denbora? Eta zulo beltz bat? Gerrak zergatik existitzen dira? Zer dago zeruaz haratago?*

**Einstein eta XXI. Mendeko haurren arteko topaketa.**

Naturaren inguruan guztiok, adin guztietako haurrok, eginiko funtsezko galderak dira. Oso gazte zenetik, Einsteinek galdera hauei erantzuna topatzeko teoria ikaragarriak asmatu zituen. Gainera bere obragatik, bere bizi-indarragatik eta baita bere itxura fisikoagatik ere, gizon jakintsuaren paradigma bilakatu da: bihozbera, despistatua, adeitsua eta hurbil erraza …

***"Misterioa esperimentatzerik dugun gauzarik ederrena da. Benetako arte eta zientzia ororen iturria baita."***

*Albert Einstein*

Aparteko zientzialari honen eta egungo haurren arteko topaketa bat proposatzen dugu. Matematika, fisika eta espazioaren arteko paradoxekin. Modu ludiko batean. Lilura, jakin mina eta magiaz beterik.

**ikuskizun interaktiboa.**

Haurrek euren jakin mina aske uzterik izango duten ikuskizuna, non lilura sentituko duten, non besteei nahiz euren buruei GALDERAK egingo dizkieten… Non frogapen zientifiko bakunak bizitzeko aukera izango duten

**komedia zientifikoa.**
**magia**
**lilura**
**poesia**
**sorpresa**

Zientzia dibertigarri eta hurbilekoa, non jakin mina jolasaren eta partekaturiko esperientziaren bitartez bideratzen den.

Umore dosi batekin eta euren jakin mina piztuko duten esperimentu zientifiko bakunekin haurrengan jokabide zientifiko bat sustatu eta garatuaz.

**albert einstein gizona**

Eta topaketa honetan, Einsteinek, zientzia, esperimentu eta dibertimenduaz gain, bere alde humanoa ere partekatuko du haurrekin. Nola bizi izan zen, nor maitatu izan zuen, bizi behar izan zituen munduko bi gerrateak …

***"Bakea da armarik boteretsuena "***

*Albert Einstein*

# bidaia bat denboran

Antzokiaren atarian, historiako jeinurik handienetariko batekin bilduko diren haurrei ongi etorria emango zaie, non zientzialarien txabusina zuria ipiniko zaien.

Behin guztiek txabusina zuria ipinita izatean, haurrak antzokira sartuko dira. Eta bertan izango da iraganetik datorren bidaiariarekin topaketa. Albert Einsteinekin

**Denboran ate bat zabaltzear da.**

Ados Teatroa *C/ San Cristóbal 4-6º-B 20012-Donostia-San Sebastián adosteatroa@adosteatroa.com*

# Einstein.

GARBI LOSADA eta JOSE ANTONIO VITORIA k idatzi eta zuzendua**.**

IÑIGO ARANBARRI *Einstein bezala*.

| | |
|---|---|
| Euskarazko bertsioa: | BEGOÑA LOSADA |
| Soinu banda: | JOXAN GOIKOETXEA |
| Espazio eszenikoa: | J. ANTONIO VITORIA eta GARBI LOSADA. |
| Argiztapena: | CARLOS SALABERRI. |
| Jantziak: | CRISTINA IBAÑEZ |
| Karakterizazioa : | ITZIAR ARRIETA |
| Eszenografiaren eraikuntza: | IKARO TALLER |
| Denbora tunelaren eraikuntza: | AREA CUBICA |
| Jantzien burutzea: : | TALLER CRISTINA IBAÑEZ |
| Atrezzo: | LA GALLINA CIEGA |
| Talde teknikoa: | LIMBOESCENA |
| Ekoizpena: | LEIRE UGARTE |
| Diseinu Grafikoa: | IOSUNE FERNANDEZ |
| Marketing | SANTIAGO SUEIRAS |
| | |
| Banaketa: | PRODUCCIONES GAUPASA |

ADOS TEATROA
**REN EKOIZPENA**
adosteatroa@adosteatroa.com
www.adosteatroa.com
Tfno 943 278109
San Cristóbal 4-6º-B
20012-Donostia

BANAKETA producciones GAUPASA SANTIAGO SUEIRAS. *Tfno/ fax: 943 27 99 00 639 97 86 88*
*gaupasa@euskalnet.net*